

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA

Gasteizko ikastetxeetan eskola-baratzeen alorreko jarduerak egiteko dirulaguntza-deialdiaren ebazpena

Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko zuzendaritza kontseiluak 2020ko azaroaren 18an onetsi zuen Gasteizko ikastetxeetan eskola-baratzeen alorreko jarduerak egiteko dirulaguntza-deialdia.

2020ko abenduaren 7an argitaratu ziren Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko zuzendaritza-kontseiluak Gasteizko ikastetxeetan eskola-baratzeen alorreko jarduerak egiteko 2020ko azaroaren 18an onetsitako dirulaguntza-deialdiaren oinarriak eta laburpena —ALHAO-ren 139.zk.—.

2021eko uztailaren 6an amaitu zen dirulaguntza-eskabideak aurkezteko epea, eta horiek aztertu ziren, dirulaguntza eskuratzeko eskatutako dokumentazioa alderatu eta egiaztatuta.

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko ebaluazio-organoak ebazpen-proposamen hau egin du, oinarrietan adierazitako hautaketa-irizpideei jarraiki:

ZENTROA	DIRULAGUNTZARI DAGOKION KOSTUAK (EUROTAN)	DAGOKION DIRULAGUNTZA (KOSTUAREN EHUNeko 50) (EUROTAN)
Zokozorri IGE-Odon Apraiz Ikastola	732,58	366,29
San Martin HLHI	342,49	171,25
Calasanz-Escolapios ikastetxea	958,72	479,36
PAULO FREIRE HHII	632,7	316,35
Egibide Jesús Obrero	497,16	248,58
Gamarrako Ostalaritzako LHII	3.237,96	1.000,00
Errekabarri HLHI	747,6	373,8
Divino Maestro-María de Maeztu LHI	457,18	228,59
Ikasbidea Ikastola IPI	1.791,59	895,8
Luis Dorao HLHI	611,58	305,79
Amezti Txiki GE-Zabalgana LHI	572,58	286,29
Zabalgana BHI	1334,33	667,17
Izartegia GE Ángel Ganivet-Izarra-Santa Lucia HLHI	368,44	184,22
San Prudencio Ikastetxea	16.555,48	1.000,00
Koldo Mitxelena BHI	994,29	497,15
Olabide Ikastola	926,78	463,39
Mendebaldea BHI	177,86	88,93
Paula Montal Ikastetxea	2.137,88	1.000,00
Guztira	33.077,20	8.572,96

Ikusirik Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren estatutuak — 2006ko apirilaren 5eko ALHAO, 40. zk—, ikastegiko lehendakariak hauxe:

Ebatzi du

Gasteizko ikastetxeetan eskola-baratzeen alorreko jarduerak egiteko dirulaguntzetarako deialdiari dagozkion zenbatekoak ordain daitezen onestea, Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren aurrekontuko 2021/0110.1722.47102 partidaren kontura.

Ebazpen honen kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta; horren ebazpen espresu edo ustezkoaren kontra, berriz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, ezespina ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ezespina hori gertatzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urriaren 14an

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko lehendakaria
ANA OREGI BASTARRIKA